



AGINDUA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO ETA KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKAKO SAILBURUENA, EUSKADIKO DOKUMENTU-ONDAREARI ETA ARTXIBO-SISTEMARI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUA PRESTATZEKO PROZEDURA HASTEN DUENA.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusibotzat jo zuen dokumentu-ondarearen eta Estatuaren titulartasunekoak ez diren artxibategien gaineko eskumena; hain zuzen ere, 10. artikulua 19. eta 20. apartatuetan. Horretaz gain, Lurralde Historikoen Legearen arabera gure lurraldeak duen eskumen-banaketari jarraikiz, foru-aldundiek dute beren titulartasuneko artxiboen gaineko eskumen eskusiboa.

Esparru horren barruan eta Euskal Autonomia Erkidegoak bere egindako eskumenak baliatuz, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak (uztailaren 3ko 7/1990) lehendabizikoz jorratu zituen, batetik, dokumentuen ondarea eta, bestetik, Artxibo Zerbitzuak eta Artxiboen Sistema Nazionala. Testu hori zaharkituta geratu da, eta Gobernantza Publikoko eta Autogobernu Saila eta Kultura eta Hizkuntza Politika Saila dokumentu-ondarearen, dokumentuen kudeaketaren eta Euskadiko artxibategien erregulazioa sustatzen ari dira, 1990eko Legean haiekin lotutako kapituluak indargabetuta.

Ondorioz, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen lege-esparrua egokitzea, bermatzeko dokumentu-ondarea babestuko, zabalduko eta eskuragarri ipiniko dela.

Helburu horrekin, Euskadiko dokumentu-ondareari eta artxibo-sistemari buruzko lege-zirriborroa prestatu nahi da, eta modu espezifiko eta osoagoan garatu nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan dokumentu-ondarearen arloan gaur egun indarrean daukagun araudia.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagokio administrazioa modernizatzeko eta berritzeko prozesua sustatzea, gidatzea eta koordinatzea, baita administrazio eta gobernu elektronikoaren eta gardentasun-politikaren arloan ere, horixe xedatzen baitu lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 6. artikuluan. Era berean, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailari dagokio ondare historiko-artistikoa eta liburutegiak kudeatzea eta babestea, dekretu horretako 14. artikuluan ezartzen denarekin bat.

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015) 133. artikuluan ezartzen duenez, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz duten iritzia jasoko da: ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak, arau hori onesteko beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak, eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.



Bestetik, abenduaren 22ko 8/2003 Legeak (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak) 4.1 artikuluan ezartzen duenari jarraikiz, gaiaren esparru-eremuak bi sailbururi edo gehiagori batera eragiten badie, hasierako agindua elkarrekin egingo dute.

Hori dela eta, Euskadiko dokumentu-ondarea eta artxibo-sistema arautuko duen lege-xedapena prestatu aurretik, kontsulta-izapidea beteko dugu.

Hala, interesdun guztiei jakinarazi behar zaie Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak lege-proiektu bat prestatzeko prozedurari ekingo diotela, aipatu ditugun gaiak arautzeko xedez.

Horregatik guztiagatik, apirilaren 11ko 71/2017 eta 82/2017 dekretuek emandako eskumenak baliatuz (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituzte dekretu horiek, hurrenez hurren) eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikulua nahiz Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 3.1, 4.1, eta 5.1 artikuluek ezarritakoarekin bat etorritik, hauxe

EBAZTEN DUGU

Lehendabizikoa.- Euskadiko dokumentu-ondareari eta artxibo-sistemari buruzko lege-zirriborroa prestatzeko prozedurari ekitea. Legearen edukiak honako atal hauek bete beharko ditu.

1.- Xedea eta helburua

Lege-aurreproiektuaren xedea Euskadiko dokumentuen eta artxibo-sistema publiko eta pribatuaren trataera eta antolaketa arautzea da, baita dokumentu-ondarea babestea ere.

Arauaren helburua honako hauek bermatzea da: erakundeen funtzionamendua hobetzea, kudeaketa publikoa gardena izatea, informazioa berrerabiltzea, herritarren zein administrazioen euren eskubideak gordetzea eta Euskadiko esperientzia kolektiboa biltzen duen dokumentu-ondarea gordetzea eta transmititzea.

2.- Bideragarritasun juridiko eta materiala zenbatestea

2.1.- Bideragarritasun juridikoa

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 10. artikuluan 20. apartatuan Euskal Autonomia Erkidegoari kulturaren arloan ematen dizkion eskumenak dira lege-ekimen honen oinarri. Apartatu horretan jasotakoarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboak du Estatuaren titulartasunekoak ez diren artxibategi, liburutegi eta museoen gainean.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legean ezarritako eskumen-araubideari dagokionez (Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko harremanen buruzkoa da lege hori), eskumen autonomikoak 6. artikuluan du babesa, artikulua horrek xedatzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eskumena dela Autonomia Estatutuaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion gai guztiei buruz legeak egitea edo lege horiek betearaztea, non eta gai horiek Estatutu horretan, aipatutako legean



edo ondorengo lege batzuetan ez zaizkien lurralde historikoetako foru-organoei aitortzen edo esleitzen. Arau horretako bigarren apartatuak adierazten du Legebiltzarrari bakarrik dagokiola lege-mailako arauak emateko ahalmena. Halaber, 27/1983 Legearen 7.a)12 artikuluan ezarritakoarekin bat, lurralde historikoetako foru-organoei izango dute eskumen eskusiboia lurralde historikoaren titulartasun diren artxibategien, liburutegien, museoaren eta arte ederrekin zein artisautzarekin lotutako erakundeen gainean.

Azaldutako araudiarekin bat eta kontuan izanik agindu honen bidez prestatzen hasia agintzen den lege berriaren gaia, autonomia-erkidegoko erakunde erkideen eskumena izango da, Eusko Legebiltzarraren bidez, Euskadiko dokumentu-ondareari eta artxibo-sistemari buruzko Legea onartzea.

Eskumen hori erabiliz onartu zen uztailaren 3ko 7/1990 Legea (Euskadiko Kultur Ondarearena), eta hark garai hartan arau-esparru bat ezarri zuen, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko artxiboen esparruan.

Gai hori, nolana ere, etengabe ari da aldatzen, gizarteak berak eskatzen dituen beharrezko berrietara egokitzeko bidean; horien artean, informazioaren gizartera moldatzea, gardentasunaren eta gobernu-onaren irizpideak txertatzea eta, azken urteetan onartutako hainbat araudiren ondorioz, indarrean jarri diren administrazio-prozeduren izapidetze elektronikoa ezartzea.

Hala, 7/1990 Legea onartu zenetik, Estatuan zein Europar Batasunean hainbat lege-xedapen jarri dira indarrean zenbait gairen inguruan, hala nola gardentasunarekin, administrazio publikoen dokumentuak eskuratzearekin edota datu pertsonalak babestearrekin lotutakoak.

Ondorioz, justifikatuta dago arau berri bat prestatzeko beharra, esparru juridiko eguneratua eskainiko duena eta oinarritzko alderdiak jorratuko dituen, Euskadiko dokumentu-ondarearekin eta artxibo-sistemarekin loturik.

2.2. Bideragarritasun materiala

Lege-aurreproiektuarekin arautu nahi den esparru materialari dagokionez, azaldu dugun moduan, dokumentu-kudeaketa integrala lortu nahi da, bai artxiboena, bai dokumentu-ondarearena.

Dokumentuen eta artxiboen kudeaketa ondare historikoarekin lotuta egon da oraindik oraintsura arte, eta, haren barruan, dokumentu-ondarearekin zehazki. Hala ere, administrazioaren eguneroko jardunaren emaitza den aldetik, herritarren eskubideen eta bermeen araubidearekin ere lotuta dago; hau da, administrazioaren jardunaren araubide juridikoarekin eta administrazio-prozedura erkidearekin. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoak arau erkideak ezar ditzake dokumentu-ondarearen alorrean, baina baita dokumentuen eta artxiboan kudeaketaren esparruan ere.

Lege-aurreproiektuak, hartara, dokumentuen prozesu osoa edo bizitza-ziklo integrala arautuko du; hasi diseinu-prozesutik eta kudeaketa-prozesuen formalizaziotik, harik eta, hautatu ostean, behar adinako balioa egiaztatzen dutenen –eta, ondorioz, Euskadiko dokumentu-ondarea osatuko dutenen– behin betiko kontserbaziora iritsi arte. Hala, bizi garen gizarte digital honek planteatzen dizkigun erronkei erantzun diegu. Horrek guztiak



eskatzen du artxibo-antolaketak egokituta egon behar duela beharizan berriotara; horrenbestez, artxibategiak administrazioen funtzio transbertsal gisa hartzen ditu, eta ez izapidetzen amaitutako dokumentazioaren azken gordailu gisa.

Alderdirik berritzaileen artean aipatuko genuke honako hau: nahitaez ezarri beharra administrazioetan dokumentuak kudeatzeko sistemak. Horren xedea dokumentuen sorrera, harrera, transmisioa, mantentze-lanak eta eskuragarritasuna bizitza-ziklo osoan kontrolatzea da, arreta berezia ipinita bitarteko digitalen bidez sortutako dokumentuei eta espedienteei. Prozesu horiek guztiak beharrezkoak dira indarrean den araudiak eskatzen dituen gobernu onaren printzipioak lortzeko.

Alde horiek bezain berritzailea izango da kargudun publikoek euren jardunean sortutako dokumentazioa artxibategi publikoetan gordetzea, baita zerbitzu publikoak ematen dituzten erakunde pribatuek sortutakoa ere, guztia ere kudeaketa publikoaren gardentasuna eta herritarren zein administrazioaren eskubideak bermatzeko.

Era berean, lege-aurreproiektuak dokumentaziorako dokumentu-ondarearen izaera kalifikatuko eta arautuko du dokumentazio publikoaren zein pribatuaren kasuan, eta haiek babesteko neurriak ezarriko ditu.

Aurreikusitako beste alderdi batek dokumentazio publikoa eskuratzearen inguruko printzipio orokorrak landuko ditu, betiere datuak eta bestelako gaiak babesteko araudietan jasotako eskubideak errespetatuta.

Halaber, Euskadiko Artxibo Sistemaren egitura arautuko da, eta lege-aurreproiektu honek izaera juridikoa emango dio Euskadiko Artxibategi Historikoari: batetik, Euskadiko Dokumentuak Balioesteko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordea sortuko du babes-organo gisa, dokumentu-ondarea zer dokumentuk osatuko duten zehazteko –lan garrantzitsua, inondik ere, dokumentazio publikoa modu masiboan produzitzen den garaiotan–; eta, bestetik, Euskadiko Artxibategien Kontseilua osatuko da, aholkularitza-organo gisa, alor honetako koordinazio- eta lankidetzak-esparruan jarduteko bokazioz.

Bukatzeko, artxibo pribatuen esparrua ere arautuko da, eta finkatuko dira bai funts hauen titularren eskubideak bai dokumentu-ondarearen titular bezala zer betebeharrak dituzten.

Azkenik, zigor-araubide bat ezarriko da Lege Aurreproiektu honek araututako gaietan eman daitezkeen arau-hausteen aurka egiteko.

Lege Aurreproiektua idazterakoan alternatiba arautzaile posibleak aztertuko dira. Zentzu honetan, aukeratzen den ereduari dagokionez, zenbait aukera ditugu. Autonomia Erkidegoko gehienetan, Kulturako eskumena duen sailaren mende daude artxiboak; beste batzuetan, antolakuntzaren eskumena duen sailaren mende (Presidentza, Administrazio Publikoak, ...). Gure inguruko herrialdeetan ohikoa da Kultura Sailak izatea artxiboen erantzukizuna; hori gertatzen da Europako Batasuneko gehienetan, eta geroz eta sarriago (batez ere herrialde anglosaxoietan) agentzia independentzen forma ematen zaie.

Eusko Jaurlaritzan, artxiboen eskumena bi sailek dute: Artxibo Historikoei dagokionez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak ditu; aldiz, dokumentuen kudeaketari dagokionez, eskumenak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak ditu. Lege Aurreproiektu honek araututakoaren bidez aukeratu beharko da bi adarreko sistema batekin jarraitzearen, edo,



hasiera batean planteatzen den bezala, bi kompetentziak arau bakar batean bateratzearen artean.

3.- Antolamendu juridikoan duen eragina.

Lege Aurreproiektuak uztailaren 3ko Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen IV. Idazpenaren I. Atalburua indargabetuko du.

Eusko Jaurlaritzak eman ahalko ditu, Lege honetan aurreikusitako erregelamenduzko xedapenez gain, berau betetzeko beharrazkoak direnak. Edozein kasutan, Legen honetan aurreikusitako erregelamenduzko arauak indarrean sartu arte, daudenak aplikatuko dira, honetan ezarritakoaren kontra ez doan guztian.

Zehazki, arau hauek indarrean egoten jarraituko dute:

- 232/2000 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen.
- 174/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.
- Agindua, 2005eko abenduaren 19koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, horren bidez, agiriak identifikatu eta baloratzeko prozedura eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora jotzeko Batzordearen (COVASAD) funtzionamendua ezartzen dira.
- Agindua, 2005eko abenduaren 19koa, Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuarena; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Instituzionaleko artxibo sistemaren arautegia ezartzen da.
- Agindua, 2016ko irailaren 27koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren dokumentuak kudeatzeko politika onartzen da.

4.- Proiektutako arauak aurrekontuan izango duen eragina.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikularekin bat etorritik, dagokion memoria ekonomikoa egingo da. Hor aztertuko dira egitekoa den arauaren kostuaren zenbatezpena eta arau horren aplikazioak EAEko Aurrekontu Orokorretan izango duen eragina. Halaber, memoria horretan azalduko da arau honek beste administrazio batzuetan eta banakoetan duen eraginaren analisia.

Memoria horrek, halaber, erantzuna eman beharko dio arauak ekonomian orokorrean duen inpaktuaren analisia egiteko beharrari, lege hauetan ezarritakoaren arabera: 20/2013 Legea, abenduaren 9koa, merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoa (EAO 2013/12/10).

Zigor-araubide bat aurreikusten da. Bertan arau-hauste administratiboak tipifikatzen dira, eta horrek zigor ekonomikoak jartzea ekarriko du. Ondorioz, diru-sarrerak egongo dira, eta horiek, halaber, kontuan hartu beharko dira.



5.- Gaia dela eta bidezkoak diren izapide eta txostenak

Xedapena Agindu honen edukia kontuan hartuz idatziko da, 8/2003 Legeak ezartzen duen ibilbidearen arabera (8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoa). Lortu nahi diren helburuei hobeto egokitzen zaizkien alternatibak kontuan edukiko dira eta, hala dagokionean, aurreikusitako arauen egokitasuna eta legezkitasuna bermatzeko eskatzen diren kontsulta eta txostenen emaitzari hobeto egokitzen zaizkienak.

A.- Sustatutako arau-ekimena jakinaraziko zaie Administrazio honetako gainerako sailei eta Gobernuko eragile juridikoei, Hasteko Agindu dau LEGESAREA lankidetzarako gunean argitaratuz.

B.- Lege Aurreproiektu honen testua idaztea Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren eta Baliabide Orokorraren Zuzendaritzaren esku uzten da. Idazterakoan arautzeko printzipio onak kontuan hartu beharko dira (Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 129. artikulua, eta 8/2003 Legearen 6. artikulua). Errespetatu beharko da, halaber, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 5. artikulutik eratorritako eskakizuna. Hain zuzen ere, hau exijitzen du: udalerriek aktiboki parte hartuko dute Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetako gobernu-maila guztietako araugintza-prozesuetan, arauak zuzenean eragiten dienean udalerrien eskumen propioei; horien artean daude udal ondare historikoa babestu, kudeatu eta kontserbatzea eta titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioak erabiltzea.

C.- Aurreproiektua Akordio honetan aurreikusitakoaren arabera idatziko da: Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioa, zeinak onartzen baititu lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak.

D.- Arau-proposamenarekin batera jarriko dira honako memoria hauek: justifikatzekoa eta ekonomikoa.

E.- Aurreproiektua idazten denean, aldi berean egingo da Genero-eraginari buruzko txostena, Akordio honetan erabakitakoarekin bat etorritz: Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Akordioa, “genero eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoa”.

F.- Lege Aurreproiektua idatzi ondoren aurretik onartzeko emango zaie Gobernantza Publiko eta Autogobernu eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuei.

G.- Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikulua betetzekoa, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazkeraren arabera, xedapenaren testua Eusko Legebiltzarrerara bidaliko da.

H.- Aurretiaz onartzeko Agindua eta arau-proiektua LEGESAREA lankidetzarako gunean argitaratuko dira.



I.- Lege-aurreproiektua entzunaldiko izapidean emango zaie Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiei eta Udalei, zuzenean edo EUDELen bidez.

J.- Eusko Jaurlaritzako sailei kontsulta egingo zaie, egokitzat jotzen dutena alega dezaten Lege Aurreproiektuari buruz, bere eta arau bidez atxikiak dituzten sektore publikoko erakundeen funtzio eta jarduera-esparruei dagokionez.

Aldi berean jendaurrean jartzeko izapidea egingo da 20 egun balioduneko epean, herritarrek Lege Aurreproiektuari ekarpenak egin ahal izateko, 8/2003 Legearen 8. artikulua betez.

Prozeduraren instrukzioan nahitaezko txosten hauek eskatuko dira:

a) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoaren nahitaezko txostena.

b) Emakunderen txostena.

c) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri-Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena.

d) Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren irizpena.

e) Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena.

f) Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena.

g) Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren txostena.

h) Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren txostena.

i) Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena.

j) Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena.

k) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.

6.- Proposatutako araudiaren edukia.

Arau honek arautuko ditu, gutxienez, alderdi hauek:

a) Euskadiko dokumentuak, artxibategi publikoak eta dokumentu-ondarea.

b) Dokumentu publikoetarako eta dokumentu-ondarerako sarbidea.

c) Euskadiko Artxiboen Sistema.

d) Zigor-araubidea.

7.- Europar Batasunaren aurrean egin beharreko izapideak.



Proiektua ez da inola ere Europar Batasunaren aurrean izapidetu behar, bere xedea ez delako zuzentarauen transposizioa, eta ez duelako eraginik Estatu kideen eskumenetan. Diru laguntza-programa edo deialdirik ere ez du.

8.- Araua elebietan idazteko metodoa.

Azaroaren 24ko 10/1982 Euskeraren erabilera normalizatzeko oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko sistema HAEE-ko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak arauaren gaztelera/euskera bertsioa itzultzea izango da.

Bigarrena.- Kultura Ondarearen Zuzendaritza izendatzea prozedura hau izapidetzeko organo erantzule bezala, 20/2016 Dekretuan zuzendaritza horri emandako eskumenen arabera (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

Hirugarrena.- Agindu hau ezagutzera ematea Administrazio honetako Legesarea lankidetzarako gunean argitaratuz, Erabaki honetan xedatutakoarekin bat etorritz; Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, zeinak xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen baititu.

Laugarrena.- www.euskadi.eus gunean argitaratzeko agintzea Euskadiko dokumentuen kudeaketa osoa eta artxiboen Lege Aurreproiektuaren aurretiako kontsulta. Herritarrek eta eragindako erakundeek, egoki baderitzote, horri buruzko iritziak iritsarazi ahal dituzte hamar egun balioduneko epean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Bosgarrena.- Egin nahi den Legearen eduki eta helbururako egoki den testua idazteko beharrezko diren txostenak eskatuko dira.

**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILBURUA**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILBURUA**

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio

Bingen Zupiria Gorostidi